

·JARDUERAK

Jarduerak enpresek dirua lortzeko erabiltzen dituzten ekintzak dira. **Ekintza** hauek oso era desberdinetakoak izan ahal dira: lehengaiak lortu, zerbait produzitu edo zerbitzuren bat eman gehienetan. Ekintza hauek aurrera eramateko, gehienetan bezeroek diru bat ordaintzen dute gure kasuan bezela eta hau izaten da enpresaren diru-iturri nagusia.

·ZEINTZUK DIRA GURE ENPRESAREN JARDUERA NAGUSIAK?

Gure enpresa norberaren estresa askatzeko zerbitzu bat denez, hau lortzeko era asko edukiko ditugu. Jarduera hauek beti ere kontrolpean eta babesekin egin beharko da inor zauritu ez dadin. Gainera, gure bezeroek ariketa **frenetiko** eta **lasaiez** gozatu ahalko dute.



Hasteko, **gauzak puskatzeko gela** bat daukagu. Hau izango da beharbada tokirik frenetikoena. Jarduera honetan bezeroek nahi dituzten objektuak jarriko dituzte mahai baten gainean eta nahi duten tresna erabilia hauek txikitu ahalko dituzte.

Beste gela batean, **deiadar** egin dezaten utziko diegu. Gela honen kanpotik ezingo da ezer entzun eta barruko pertsonak nahi duena esan dezake tokiaren barruan dagoela. Baliteke hau lasaigarria izatea batzuentzat askok eta askok ohiu egiten baitute urduri daudela.



Azkenik, **masajeak** emateko gela bat prestatuko dugu. Hemen gure kontsumitzaileak oheetan etzango dira eta gure profesionalek masajeak emango diete horrela lasaitu daitezten. Hau izango da gure jarduerarik

lasaiena baina hala ere, oso baliozkoa da astean zehar hartzen dugun tentsioa lasaitzeko.